

LITERATURA DRAMATIKOA

LITERATURA DRAMATIKOA	1
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK	3
1 GAITASUN BERARIAZKOA	3
1 konpetentzia espezifikokoaren deskribapena	3
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	3
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	4
2 GAITASUN BERARIAZKOA	4
2 konpetentzia espezifikokoaren deskribapena	4
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	4
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	4
3 GAITASUN BERARIAZKOA	5
3 konpetentzia espezifikokoaren deskribapena	5
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	5
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	5
4 GAITASUN BERARIAZKOA	6
4 konpetentzia espezifikokoaren deskribapena	6
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	6
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	6
5 GAITASUN BERARIAZKOA	7
5 konpetentzia espezifikokoaren deskribapena	7
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	7
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	7
ONARRIZKO JAKINTZAK	8
A. Ibilbide tematikoetan bildutako literatur dramatikoko testu esanguratsu batzuen interpretazioaren eraikuntza gidatua eta partekatua, erlazio intertestualak ezarrita genero, garai, testuinguru kultural eta kode artistiko batzuetako obra eta pasarteen artean, bai eta dagozkien produkzio testuinguruekin ere, honako ardatz eta estrategia hauen arabera:	8
A.1 Antzerki artea.	8
A.2 Literatura dramatikokoaren gaiak eta formak.	8
A.3 Antzerki testuak aztertze, interpretatzeko eta sortzeko estrategiak.	9
B. Literatura dramatikoko obra esanguratsuen harrera autonomia egitea eta literaturari buruzko elkarriketetan eta gomendioen trukean parte hartzea, honako estrategia hauek garatuta:	9

LITERATURA DRAMATIKOA

Ukaezina da Literatura Dramatikoa ikasgaiak Batxilergoko ikasleen funtsezko kompetentzien garapena aberasten duela, haien kontzientzia artistikoa eta sentsibiltatea zabaltzen baititu, antzerki generoaren ezaugarri espresibo, sinboliko, tekniko, estetiko eta soziologikoei lotuta. Orobat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoko Gaztelania eta Literatura eta Literatura Unibertsala ikasgaietan literatura hezkuntzarako ezarritako bidea osatzen du, eta horregatik ditu antzeko printzipio metodologikoak. Izan ere, literaturr gela espazio pribilegiatua da eskolatze osoan zehar landuko diren bi irakurketa modalitateak –gidatua eta autonomia, alegia– garatzeko, eta horrela, bien corpusak elkar daitezen laguntzeko. Kasu honetan, eta genero dramatikoaren ezaugarriak kontuan hartuta, bi modalitate horiek harrerako kontzeptu zabalago batera irekitzen dira, eta, horren arabera, antzerki ondarrera iristen da bai irakurketaren bidez, bai ikus-entzunezkoen bidez, bai antzerki emanaldietara joanez. Hortaz, berezitasun hori kontuan hartuta, harrera gidatua eta harrera autonomia aipatuko ditugu, beharrezkoa denean. Literatur intertestualitate izugarri horretan ibiltzeak aukera paregabea ematen du literaturaren, idazketaren edo egiletzaren zentzuari buruz hausnartzeko, bai eta idazten edo irakurtzen den une sozialarekiko erlazioari buruz gogoeta egiteko ere. Azkenik, honako gaitasun hauek sustatzen dira: antzerkiko ikusle izaten ikastea; antzerkiaren garrantzia eta kontzientzia soziala sortzeko duen bokazioa ulertzea, eta sorkuntza artistikoa hizkuntza espezifiko batzuen zerbitzura dagoela berrestea eta baloratzea. Orobat, irakurketa dramatiko oinarritzko teknika batzuk praktikatzeko aukera ematen da.

Proposatutako ikuspegiak, bada, kontzientzia artistikoa pizten die ikasleei, eta hori oso baliagarria da ikasgelatik ulertzeko obra dramatiko bat sortzeko eta interpretatzeko prozesua eta ateak irekitzeko literatur tradizioa deritzonaren ulermenari eta balorazioari. Halaber, antzerki generoko obrek pribilegio handi bat dute: oso egokiak dira irakurleek komunitatean partekatzeko. Izan ere, obra bat modu partekatuan irakurtzeak hamaika aukera ematen ditu iritziak eta ikuspegiak trukatzeko, irakurtzen jarraitzeko eta obra osatzen duten alderdiak (tematikoak, linguistikoak, pragmatikoak, etab.) ikertzeko eta beste testu batzuk ekoizteko. Irakurketa prozesuek elkar elikatzeak bide aberasgarria eskaintzen du ikasleek beren identitatea osa dezaten literatura irakurle edo idazle gisa eta antzerkiko eta kulturako publiko gisa, eta identitate hori eraikitze metodologiak sistematizatzen laguntzen du, hizkuntza komunikaziorako kompetentzia garatzea ahalbidetzen baitu.

Ikasgai honek balio du genero dramatikoari buruzko erreferentzien mapa historiko bat eskuratzeko, eta analisi teknika batzuk eskaintzen ditu, ikasleei balio dietenak arte eszenikoak ulertu, interpretatu eta haietaz gozatzeko eta ulertzeko zer testuinguru historiko eta kulturaletan ekoitzi eta antzeztu diren, gehienetan ez baitatoz bat. Halaber, gonbita egiten du kritikoki zalantzan jartzeko kanon bat, kanpoan utzi duena emakumeek edo mendebaldekoak ez diren autoreek idatzitako obren zati handi bat. Iruditeriak zabaltzeak, zalantzarik gabe, gizarte kohesioari, kulturarteko hezkuntzari eta hezkidetzari laguntzen die. Hala, literatura dramatikoaren klasikoak irakurketa partekatu eta autonomia, haien inguruko deliberazio argudiatuak, arakatze prozesuak garatzeak edo klasikoek jabetu eta horiek berregiteak ekarpen erabakigarria egiten diote funtsezko kompetentzien multzoaren garapenari.

Literatura Dramatikoko curriculum bost kompetentzia espezifikoren arabera egituratzen da. Lehenik eta behin, literatura dramatiko klasikoak, irakurrita edo eszenatokian ikusita, interpretatzeko trebetasunak. Trebetasun horietan, kontuan hartzen dira obraren eraikuntza elementuen barne-harremanak obraren zentzuarekin, bai eta obra horrek bere ekoizpen testuinguruarekin eta literatur tradizioan duen lekuarekin duen lotura ere, ahaztu gabe generoaren harrerarako ezaugarri bereziak eta bereziki azpimarratuz irakurketa dramatizatua eta taldekakoa egiteko moduak. Bigarrenik, antzerki obrak irakurtzeko eta publiko gisa modu autonomoan jasotzeko estrategiak jartzen dira abian, halako

moduz non harrera gidatutik eta partekatutik sortutako erreferentziazko mapak aprobetxatzen baitira, beren identitateak eraikitzeke antzerki ikusle gisa. Hirugarren kompetentzia espezifikoan, berriz, zenbait garai, testuinguru eta hizkuntza artistikotako obren irakurketa konparatua egiten da. Horrek balio du ikusteko generoaren historian zehar errepikatzen diren unibertsal tematikoak, pertsonaien arketipoak eta bide formalak daudela. Hirugarren kompetentzia honen beste helburuetako bat da testu dramatikoaren eta hark denboran zehar izan dituen eszenaratzeen arteko loturak aztertzea (egokitzen zinematografikoak barne) eta, aldi berean, erreferentzia partekatuen esparru bat eta kultur mapa bat eskaintzea ikasleei, aukera emanen diena etorkizunean antzerkiaren, literaturaren eta artearen arloan biziko dituzten esperientziak testuinguruan jartzeko. Laugarren kompetentzia espezifiko antzerkia idaztean datza. Azkenik, eztabaida kultural batean parte hartzen da literatur kanonari buruz eta han beste obra dramatiko batzuk sartzeko beharrari buruz, ulertuta munduaren gaineko begiraden aniztasuna islatu behar dutela; eta, orobat, literaturak iruditeriak eraikitzeke duen garrantziaz eztabaidatzen da.

Ebaluazio irizpideak kompetentzien ikuspegiari jarraikiz ezarri dira, eta honako alderdi hauei lotutako ezagutza, abilezia eta jarrerei erantzuten diete: testu dramatikoaren eta antzezpenen interpretazioa, obrei buruzko iritzi argumentatuak formulatzea, literatur asmoko testuak sortzea eta kultur mapa bat osatzea, balioko duena lan horiek dagokien testuinguru soziohistoriko, literario eta kulturean txertatzeko. Horrek guztiak ebaluazio tresnak eta bitartekoak dibertsifikatzea eskatzen du, diagnostikoaren zerbitzura jartzeko, eta honako hauei lotutako trebetasunak hobetzeko: harrera, ekoizpena eta ahozko eta idatzizko interakzioa, ikerketa prozesuak, eta pentsamendu kritikoaren garapena.

Ikasgaiaren muina testuen eta irakurleen edo ikusleen arteko topaketa da, eta horregatik jakintzak antolatuta daude bi bloketan, lotuta daudenak, hurrenez hurren, literatur dramatikoaren klasikoaren eta obra garrantzitsuen harrera gidatuari eta harrera autonomoari. Corpusa, hortaz, bera da, baina harrera modalitate bakoitzak bere estrategia bereziak dauzka. Lehenengo blokea lotuta dago zentzuen eraikuntza gidatu eta partekatuari, antzerkia irakurtzetik edo ikustetik edo antzokira joatetik abiatuta. Blokea hasten da hurbilketa bat eginez antzerki artearen espezifikazioetara, arreta berezia jarritz testuari, errealizazio eszenikoari eta ikuskizunaren harrerari. Testuen aukeraketari dagokionez, corpus ireki baten alde egiten da, irakasleak gonbidatzen dituen ibilbideak konfiguratzen obra baten inguruan. Hain zuzen, obra horren harrera gidatua eta partekatua egiten da. Aurkezpena lau ardatz tematikoren inguruan antolatuta dago –"nia-ren antzerkia", "besteak", "mundua" eta "metaantzerkia"– eta haren helburua ez da ibilbideak eraikitzeke aukerak mugatzea edo agortzea. Izan ere, ez da elkarren segidan jarritako preskripzioen katalogo bat. Aitzitik, haren helburua da irakasleei adibideak ematea, eraiki ahal izan ditzaten ikasleen aniztasunera eta premietara egokitutako ibilbide progresiboak.

Hortaz, asmoa ez da, inondik inora ere, proposatutako aukera guztiak agortzea, baizik eta irakasle bakoitzak obra kopuru jakin bat aukeratzea eta foku bat hautatzea, balioko diona beste testuinguru kultural edo molde generiko batzuetako obrekin lotzeko, ondoren batzuen eta besteen irakurketa konparatua egiteko eta denboran zehar izan dituzten eszenaratzeak ikertzeko. Ibilbide horiek aukera eman behar dute une, testuinguru (idazketakoak, ekoizpen eszenikokoak eta harrerakoak), gatazka, literatura arketipo, pertsonaien arketipo, adierazpen bide eta forma eta abarretara hurbiltzeko, bai eta honako hauek modu konparatuan irakurtzeko ere: testu klasikoak eta garaikideak, nazionalak eta atzerrikoak, eta literarioak eta ez literarioak (historiografikoak, literatura kritikakoak edo beste arte kode batzuetakoak, antzerkia, ikus-entzunezko fikzioa eta fikzio digital garaikidea barne).

Literatura Dramatikoa ikasgaiak, azken batean, aukera ematen die ikasleei, antzerkiko irakurle edo publiko gisa duten esperientziaren bidez, beren gaitasun artistiko, sortzaile eta interpretatiboak garatzeko eta, modu horretan, alderdi teorikoen eta praktikoen artean finkatu beharreko erlazioa ulertzeko. Funtsezkoa da antzerkiaren praktika etengabe aipatzea lan dinamikan, bai eta, testutik abiatuta, askotariko garaiak eta lekuak zeharkatzen dituzten egoera eszenikoetara ere jotzea. Izan ere, modu horretan, ikasleak alderdi literarioan, estetikoan eta kulturean trebatzen dira, eta horrek guztiak sentiberatasun handiagoa izaten laguntzen die, halako moduz non bizi esperientzia osoagoa izanen baitute, ahalbidetuko diena aniztasunera hurbiltzea eta aurreiritzi eta estereotipo sozialak ezabatzea. Azken finean, ikasleen ondare kulturala eta beren adierazpen aukerak aberasten lagundu nahi da, iraganeko kulturak ilustratu zituzten antzezlanen, ikuskizunen eta antzerki muntaien edertasuna eta gure oraina sostengatzen eta gure etorkizuna aurreratzen dutenak balioesten irakatsita.

1. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1 GAITASUN BERARIAZKOA

Literatura dramatikoko obrak irakurtzea edo haien eszenaratzeak ikustea, kontuan hartuta bai generoa osatzen duten elementuen barne-harremanak eta obretako funtzioak, bai obren kanpo-harremanak beren ekoizpen testuinguruarekin eta kultur tradizioan duten atxikipenarekin; hori guztia, literaturaz gozatzeko aukerak zabaltzeko eta arte adierazpena estimulatzeko.

1 kompetentzia espezifikokoaren deskribapena

Kompetentzia honen zeregina da interpretazio trebetasun batzuk garatzea, aukera emanen dutenak ondare dramatikoko obra garrantzitsuetara iristeko, irakurketan edo antzezpen dramatikotik oinarritutako balio-judizio bat hitzez adierazteko, irakurketa edo antzezpen horien balioespen estetikoan oinarrituta, eta lagunduko dutenak kultur mapa bat eraikitzen, uztartuko dituen horizonte nazionalak, europarrak eta unibertsalak, batetik, eta antzerki obrak eta beste adierazpen artistiko batzuk, bestetik. Helburua da modu kontzienteagoan eta landuagoan gozatzeko antzerkiaren generoak.

Kontua ez da, ordea, asmo entziklopedikoak dituen literatur dramatikokoaren historia bat egitea, baizik eta obra kopuru txiki bat hautatzea eta horien harrera gidatua eta partekatua egitea ikasgelan (edo eszenatoki batean). Horien osagarri, testu eta antzezpen multzo bat aurkeztuko da, balioko duena obrak testuinguru historiko eta kulturean kokatzeko, literatur tradizioan eta tradizio eszenikoan txertatzeko, izan dituzten interpretazioen historiara iristeko eta beste forma artistiko klasiko eta garaikide batzuekin elkarriketan jartzeko.

Halaber, behar bezala garatuko da irakurketa dramatizatua, kolektiboa eta ozenki, arreta berezia jarrita egoeren eta eszenen konfigurazioan, eta emozioak eta hitzen intentsitatea nabarmenduta, antzerkiaren praktika eta testutik abiatuta sor daitezkeen egoera eszenikoak etengabe aipatuko dituen ikasgelako prozesu batean.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Kompetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK4, HK1, KKAK1, KKAK2, KKAK3.1, KKAK3.2, KKAK4.2

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.1. Irakurritako edo ikusitako obren interpretazioa azaltzea eta argudiatzea, haien osagaiek obraren zentzuarekin dituzten barne-harremanak eta testuak testuinguru soziohistorikoarekin eta literatur tradizioarekin dituen kanpo-harremanak aztertzetik abiatuta, berariazko metahizkuntza erabilia eta obren hautemate estetikoarekin lotutako balio-judizioak eginda.

1.2. Taldean eta ozen irakurtzea antzerki obrak eta pasarteak, arreta berezia jarritz egoeren eta eszenen konfigurazioan, eta emozioak, hitzen intentsitatea eta elementu prosodikoak nabarmenduta; eta, aldi berean, motibazioa, interesa eta gaitasuna erakutsiz zeregin kolektiboetan inplikatzeko.

2 GAITASUN BERARIAZKOA

Modu autonomoan irakurtzea edo eszenatokian ikustea literatura dramatikoko obra garrantzitsuak, gozamen eta ezagutza iturri baitira; modu orientatuan hautatzea norberaren gustu, interes eta pre- mietara hobekien egokitzen direnak; antzerkira iristeko moduak dibertsifikatzea eta harrerari lotutako esperientziak partekatzea; hori guztia, irizpide propioa eratzeke eta antzerkiaren dimentsio sozialaz gozatzeke.

2 konpetentzia espezifikokoaren deskribapena

Konpetentzia hau garatzeak esan nahi du aurrera egin behar dela autonomia sendotzeko eta norberaren irakurle identitatea eta identitate artistikoa eta kulturala eraikitzeko bidean, ulertuta hori funtsezkoa dela irakurtzeko eta antzokira joateko ohiturak eskola bizitzatik harago ere iraun dezan. Horretarako, bada, denbora tarte bat hartu behar da, maiz, bakarka irakurtzeko eta antzezpenetan (eta arte eszenikoetako ikuskizunetan, oro har) parte hartzeko eta haietaz gozatzeke, bai eta gogoeta egiteko ere, horrek lagunduko baitu erlazioak ezartzen irakurritako testuen eta haien antzezpenen eta beste egokitzapen batzuen artean (zinema, telebista edo askotariko formatu digitalak). Harrera gidatuaren corpusa eta harrera autonomoarena, biak daude osatuta garai guztietako literatura dramatikoko klasikoez eta obra garrantzitsuez, eta biek bat egiteak laguntzen du erreferentziazko mapak eratzen, gero aurrerapen ibilbideak eraiki ahal izateko. Antzerki obra eta ikuskizun konplexu samarrek planteatzen dituzten erresistentziak gainditzeko balio duten interpretazio trebetasunak bereganatzeak hautaketa irizpideak garatzen laguntzen du. Irizpideok ezinbestekoak dira antzerki irakurle eta ikusle autonomoak prestatzeko.

Horretarako, dagozkion testuez gozatzeke moduak eta haien aniztasuna eta konplexutasuna zabaldu behar dira (egungo literatur formak, kultur praktika emergenteak eta zinema edo telebistako fikzioa barne) eta irakurle edo ikusle gisa, obraren harrera esperientzia nolakoa izan den adierazteko gaitasuna indartu. Antzerki-irakurketen sorta handitu nahi da, eta, horrekin batera, obrak irakurtzeko moduak aberastu, arian-arian haien proposamen estetikoak hauteman ahal izateko; horrez gain, esperientziaren formulazioaren oinarri diren elementuak zabaldu eta baloratzen ahalko dira, testuen arteko intertestualitatea identifikatuta, eta antzerki irakurketekin eta antzezpenekin lotutako araketak egin eta saiakerak irakurri.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK4, KPSII1.2, KPSII5, EK3, KKAK1, KKAK2, KKAK3.1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

2.1. Literatura dramatikoko obra garrantzitsuenak irakurri, ikusi edo haien antzezpenera joan eta gero, interpretazio pertsonal bat egitea, alderdi tematikoak, generoa eta azpigereneroa, egituraren eta

estiloaren elementuak, eta obren balio etiko eta estetikoak kontuan hartuta, eta lotura argudiatuak ezarrita beste obra batzuekin eta beste esperientzia artistiko eta kultural batzuekin.

2.2. Hainbat modutan iristea kultura literario dramatikorako, irakurketa ibilbide pertsonal baten barnean, zeinak modu kontzientean eta sistematikoan aberastuko baitu norberaren identitatea antzerki irakurle eta ikusle gisa.

2.3. Literatur elkarrizketetan parte hartzea, antzerkia irakurri, ikusi edo antzezpenetara joateari lotutako esperientzia pertsonalak partekatzeko metahizkuntza espezifiko baliatuta.

3 GAITASUN BERARIAZKOA

Zenbait garai, testuinguru eta hizkuntzako obra dramatikoaren artean loturak ezartzea, historian zehar errepikatzen diren unibertsal tematikoak, pertsonaien tipologiak eta bide formalak daudela berresteko, eta antzekotasun eta diferentziei antzematea, bakoitzaren ekoizpen testuinguruaren eta literaturaren eta gizartearen arteko erlazioaren arabera.

3 kompetentzia espezifikokoaren deskribapena

Kompetentzia espezifikoa honen bidez, antzerki fenomenoaren ulermenean aurrera egitearen garrantzia azpimarratzen da, irakasleek harrera gidatu eta ezarritako ibilbideen esparruan; horretarako sakonduz antzerki testuaren nozioan eta eszena errealizazioaren eta sistema estilistikoaren esanahi elementuetan; azken bi horiek obrak antzeztzen direnean. Horretarako, beharrezkoa izan da ikaskuntza oinarrituta egotea obren interpretazioari lotutako arakatze prozesuetan eta eraikuntza partekatukoetan, barnean dela testu dramatikoaren eta haien askotariko eszenaratzeen arteko azterketa konparatiboa, eta ulertuta antzerkia eraikitze balio duten konbentzioen funtzioak eta efektuak.

Halaber, zenbait obra, eszenaratze, egokitzen zinematografiko edo lotutako adierazpen artistikotik maiz arakatzeak, ikertzeak eta haiek alderatzeak balio behar du berresteko gai, topiko eta pertsonaia unibertsalak daudela, eta ulertzeko adierazpen baliabideak eta balio etikoak eta estetikoak historian zehar aldatzen direla. Hain zuzen, horrek guztiak osatzen du antzerkiaren artea oro har, eta literatur genero dramatikoaren zehazki, iruditeria sozialen eraikuntzan erabakigarria den artefaktu ideologiko gisa.

Azken batean, genero dramatikoaren literatura ondareko obra gailen batzuk hautatu behar dira

–emakume idazleen lanak barne– ikasgelan irakurketa gidatua eta partekatua egiteko, funtsezko elementuak erakusteko antzerkiaren eraikuntza eta funtzionamenduari dagokionez, baita beste testu batzuekin eta beren ekoizpen testuinguruaren balio ideologiko eta estetikoekin dauden erlazioei eta gure oraina argitzeko eta azaltzeko ahalmenari dagokienez ere.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Kompetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK4, KD1, STEM2, KPSII5, HK1, KKA1, KKA2.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

3.1. Antzerki testuak edo pasarteak elkarren artean eta haien eszenaratzeekin, egokitzen zinematografikoekin eta lotutako beste adierazpen artistiko batzuekin alderatuta, antzekotasun eta kontraste elementuak ahoz edo idatziz argudiatuz, bai gai eta eduki alderdiei dagokienez, bai alderdi formal eta adierazkorrei dagokienez, haien balio etiko eta estetikoak ere kontuan hartuta.

3.2. Irakurketa gidatuaren xede diren literatura dramatikoaren obren eta atzoko eta gaur egungo beste testu eta adierazpen artistiko batzuen artean lotura argudiatuak ezartzen dituen gai baten inguruko ahozko azalpen, saiakera edo aurkezpen multimodal batean gauzatuko diren eta inplikazioa

eta irakurleak irakurketari ematen dion erantzuna erakutsiko duten ikerketa proiektuak garatzea, gaien, topikoen, egituren, hizkuntzaren, adierazpen baliabideen eta balio etiko eta estetikoaren arabera.

3.3. Azalpen multimodal bat egitea, banaka edo taldeka, irakurritako edo ikusitako antzerki testuak beren horizonte historiko kulturalen kokatzeko eta generoei, estiloari eta literatura unibertsaleko obra garrantzitsuei buruzko ikuspegi orokorra eskaintzeko.

4 GAITASUN BERARIAZKOA

Testu dramatikoak birsortzeko edo sortzeko beharrezkoak diren adierazpen eta sormen gaitasunak erabiltzea, generoaren berezko elementuak eta askotariko teknikak baliatuta; hori guztia, ekintza dramatikoa osatzeko, pertsonaiak diseinatzeko eta egoerak eta eszenak konfiguratzeko.

4 kompetentzia espezifikoaren deskribapena

Beste literatur generoekin alderatuta edo aurrez idatzitako testuak antzezteko jokoen aldean, gerta liteke, bai, antzerkiaren idazketa gutxiago lantzea ikasgelan. Dena den, adierazpen eta sormen potentzial handia dauka arte eszenikoak hainbat modutan ezagutu eta bizi ahal izateko, eta, zalantzarik gabe, laguntzen du pertsona autonomoak, parte-hartzaileak, solidarioak, sortzaileak eta kultura artistikodunak garatzen. Antzerkia idaztea oso egokia da hizkuntzari, literaturari eta komunikazioari lotutako ikaskuntzetarako. Halaber, ahozko hizkuntza eta idatzizkoa oso modu esplizituan erlazionatzen dituenek, bi adierazpen modu horiek hobetzen laguntzen du. Azkenik, antzerki generoaren azpian dagoen gatazka dramatikoa aproposa da nerabe eta gazteek modu intimoan eta pertsonalean adieraz daitezen bai beren buruei buruz bai munduaz duten ikuspegiari buruz.

Hortaz, kompetentzia hau garatzeko, antzerkia idaztea ez da ikusi behar ikasleen iruditerian oso presente dauden ikuskizunen kontzeptzio jakin baten errepikapen edo imitazio huts gisa. Aitzitik, antzerki obraren egituraren ezagutza ahalik eta sistematikoena izan behar du abiapuntu, oinarritzko mailan bada ere, kontuan hartuko duena haren izaera bikoitza –testu dramatikoarena eta antzezpenarena, alegia–, eta horretarako baliatuz ikasgaiko ibilbideetan landutako testuak eta antzezpenak. Modu horretan, ikasleei laguntzen zaie sormen aukera berriak benetan bilatzen, horretarako kontzeptuak lotuz, pertsonaiak, agertokiak, giroak, gatazkak, arazoak eta konponbideak identifikatuz eta aldatuz esperientzia dramatikoko egoeren inguruan, eta norberaren sormen asmoaren garapena bultzatuz une oro.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Kompetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, KD3, KPSII3.2, KKAK2, KKAK3.1, KKAK3.2, KKAK4.1, KKAK4.2.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

4.1. Antzerki testu pertsonalak edo kolektiboak sortzea literatur asmoarekin eta estiloaren kontzientziarekin, hainbat euskarritan eta beste hizkuntza artistiko eta audiobisualen laguntzarekin, zenbait antzerki obra edo pasarte esanguratsuren irakurketatik abiatuta, zeinetan genero honen konbentzio formalak erabiltzen baitira, eta bereziki erreparatuta haien oinarritzko bi testu sekuentziei (elkarriketa eta oharrak) eta esanahi elementuen islari (espazioa eta objektu eszenikoak, argiztapena eta soinua, pertsonaien diseinua edo interpretazio kodeak).

5 GAITASUN BERARIAZKOA

Antzerki obrak irakurrita, ikusita edo horietara joanda, zeinetan idazleak edo funtsezko pertsonaiak emakumeak baitira, literatur kanon dramatiko unibertsal baten eraikuntzan parte hartzea, emakumeen esperientziaren ikuspegia integratuko duena eta mendebaldeko kulturatik harago joanen dena; hori guztia, beste ahots batzuekiko interes, errespetu eta sentsibiltate kontrapuntuak ezartzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko munduaren eta haren iruditerien eraikuntza diskurtsiboari dagokionez.

5 konpetentzia espezifikoaren deskribapena

Sentsibiltate garaikidea eta literatur ikasketa berrienak bat datoz: literatur kanonaren eraikuntzan hutsune nabarmenak daude. Emakumeak falta dira, bai eta mendebaldekoak ez diren ahotsak ere, eta horregatik da ezinbestekoa kanona berreraikitzea, batzuk eta besteak sartzeko eta kanonetik kanpo zergatik geratu izan diren aztertzeko. Literatura eta artea erabakigarriak dira iruditeriak eraikitzeko; besteak beste, generoen eraikuntza sozialerako, “guk” bat eratze “besteen” aldean, edo sentimenduen eta amodioen ereduak marrazteko. Hortaz, literatura hezkuntzak –eta kasu honetan, genero dramatikoaren ingurukoak– trebetasun batzuk bildu behar ditu, ikuspegi urrundua garatzen duten eta munduaren eraikuntza diskurtsiboari buruzko hausnarketa kritikoa errazten duten testuak irakurtzeko, interpretatzeko eta beste modu batean bereganatzeko. Horrek lagunduko du inkontzienteki sexistak, etnozentrikoak edo arrazistak diren jarrerei antzematen eta horiek baztertzen.

Horretarako, bada, irakurketa partekaturako obren eta horiei lotutako pasarte eta antzezpenen artean sartu beharko dira benetan unibertsala den ondare bateko laginak, zeinetan egon beharko baitute emakumezko idazleak, emakumezko pertsonaia nabarmenak eta mendebaldekoak ez diren obrak. Ibilbide horietako baten hari nagusiak, hain zuzen, alderdi horietan jar lezake arreta. Gaiaren arabera antolatutako testuen corpus bat aurkezten da, eta horrek mesede egiten die aipatutako apustuei.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK4, KPSII3.1, KPSII4, HK1, KKAK1, KKAK2.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

5.1. Ikerketa proiektu bat egitea emakumezko autore garrantzitsuei buruz, emakumezko funtsezko pertsonaiei buruz, mendebaldeko testuinguruetatik kanpoko antzerki obrei buruz edo literatur tradizioak proposatzen dituen iruditerien eraikuntzari buruzko ikuspegi anitza eta kritikoa ematen duten alderdi tematiko edo formalei buruz.

5.2. Antzerki testuen iruzkin kritikoak edo aipamenak egitea ahoz edo idatziz, eta debateetan edo mahai-inguruetan parte hartzea genero ikuspegia txertatzen duten eta mendebaldeko kanonaren berezko begirada etnozentrikoa edo gure gizartean nagusi den beste edozein diskurtso, gutxiengoren baten zapalkuntza dakarrena, zalantzan jartzen duten antzerki irakurketei eta ikustaldiei edo antzezpenei buruz.

2. OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Ibilbide tematikoetan bildutako literatur dramatikorako testu esanguratsu batzuen interpretazioaren eraikuntza gidatua eta partekatua, erlazio intertestualak ezarrita genero, garai, testuinguru kultural eta kode artistiko batzuetako obra eta pasarteen artean, bai eta dagozkien produkzio testuinguruekin ere, honako ardatz eta estrategia hauen arabera:

A.1 Antzerki artea.

A1.1 Antzerkiko testua: Definizioa eta elementuak.

- Libretoa: ekitaldiak, koadroak eta eszenak; elkarrizketa, bakarriketa eta apartea; didaskaliak eta oharak; dramatis personae.
- Ekintzaren barne-egitura: gatazka, egoera eta pertsonaiak; eraikuntza dramatiko eta postdramatikoa; hizkuntza eta estiloa..

A1.2. Antzerkiko pertsonaia.

- Pertsonaia dramatikoaren karakterizazioa: planoak, funtzioak, pertsonaia eta ekintza, hierarkia, esanahia.
- Antzerkiko pertsonaiaren ereduak, tipologia eta bilakaera, hastapenetatik pertsonaiak antzerki modernoan bizi duen krisira arte.

A1.3 . Errealizazio eszenikoa eta sistema estilistikoa.

- Espazio eszeniko-eszenografikoa eta objektu eszenikoa.
- Pertsonaiaren diseinua: jantziak, maskara eta makillajea.
- Soinu espazioa, argiztapen diseinua eta ikus-entzunezko baliabideak.
- Aktoreen lana eta interpretazio kodeak.

A1.4 Antzerki harrera: publikoarekiko harremana. Katarsia, urruntzea eta parte-hartzea.

A.2 Literatura dramatikoaren gaiak eta formak.

A2.1 “Ni”aren antzerkia: pertsonaiak bizi eredu gisa.

- Antzerki biografikoa: Antzerki subjektuaren eraikuntza eta giza izaeraren inguruko galdera nagusietan ikertzea; identitatea, maitasuna, mina, heriotza eta abar.
- Antzerki autobiografikoa: intimitatea, lekukotasuna eta autoerreferentzialtasuna.

A2.2 Besteekin bizitzea: antzerkia giza harremanak interpretatzeko eredu gisa.

- Tragedia: gizakia, patua eta etika.
- Drama: askatasun indibiduala eta konbentzio sozialak.
- Komedia: umore adeitsua, umore kritikoa.

A2.3 Munduan bizitzea: antzerkiaren funtzioa eta zentzua.

- Mitologia eta kosmogoniak: hainbat tradiziotako antzerki mitikoa eta erlijiosoa.
- Mundua erreproduzitzea: errealismoak; antzerkia ohituren eskola edo kritika gisa.

- Antzerki konprometitua: antzerki politikoa, antzerki dokumentua, antzerki epikoa eta abar.
- Mundua imajinatzea: magiazko komedia, sinbolismoa, abangoardiak, antzerki postdramatikoa eta abar.

A2.4 Antzerkiaz hitz egiten duen antzerkia: antzerkiaren metafikzioa.

A.3 Antzerki testuak aztertzeke, interpretatzeko eta sortzeko estrategiak.

- A3.1. Obra dramatikoaren interpretazioaren eraikuntza partekatuan parte hartzea, eztabaida edo elkarriketa literarioen bidez.
- A3.2. Genero dramatikoaren osagaien eta obraren zentzua eraikitzearen arteko erlazioa. Bere adierazpen-baliabideen efektuak harreran. Publikoarekiko interakzioa.
- A3.3. Informazio soziohistorikoa, kulturala eta artistikoa erabiltzea obren interpretazioa eraikitzeko eta literatur tradizioan daukaten tokia ulertzeko.
- A3.4. Obren eta bestelako arte adierazpenen arteko lotura intertestualak ezartzea, gaien, topikoen, egituren eta hizkuntzen arabera. Jarraipen eta haustura osagaiak.
- A3.5. Antzerkiak iruditeria sozialaren eraikuntzan erabakigarria den artefaktu gisa nola funtzionatzen dun ikertzea, arreta berezia jarritz genero ikuspegian.
- A3.6. Obra eta pasarte dramatikoaren interpretazioa argudiatzea, aztertutako alderdiak integratuta, eta haien balio kulturalak, etikoak eta estetikoak kontuan hartuta. Antzezlanaren aipamena edo erreseina.
- A3.7. Testuen irakurketa adierazkorra eta dramatizazioa, kontuan hartuta horretan esku hartzen duten ulertze eta ahoskatze prozesuak eta antzerki interpretazioaren funtsezko ezaugarriak.
- A3.8. Antzerki testuak sortzea literatura hizkuntzaren konbentzioak bereganatuta eta emandako ereduen arabera (imitazioa, eraldaketa, jarraipena, etab.).

B. Literatura dramatikoko obra esanguratsuen harrera autonomia egitea eta literaturari buruzko elkarriketetan eta gomendioen trukean parte hartzea, honako estrategia hauek garatuta:

- B.1. Obrak hautatzea modu autonomoan eta gomendio espezializatuen laguntzarekin.
- B.2. Modu aktiboan parte hartzea literatura, irakurketa eta antzerki zirkuituetan, aurrez aurre eta modu digitalean.
- B.3. Norberaren gustu dramatikoak definitzea, irakurritako edo ikusitako corpusa difertsifikatuz, eta horretarako kontuan hartuz antzerkiaren zirkuitu kulturalak.
- B.4. Irakurle edo ikusle gisa izandako esperientziak adieraztea, metahizkuntza espezifikoa erabilita, eta interpretazio pertsonal bat egitea, kontuan hartuko dituen gaiei eta egiturei buruzko alderdiak eta errealizazio eszenikoari eta sistema estilistikoari lotutakoak.
- B.5. Norberaren esperientzia –irakurritakoarena eta antzerkian ikusitakoarena– mobilizatzea, irakurritako edo ikusitako obra eta aktualitatearen alderdi batzuk lotzeko modu argumentatuan, baita beste testu batzuk eta beste arte eta kultura adierazpen batzuk ere (kultur praktika emergenteak barne).
- B.6. Irakurketak eta eszenaratzeak gomendatzea askotariko euskarritan, alderdi tematikoak, formalak eta intertestualak kontuan hartuta.